

Julene Azpeitia

Ipuin Lehiaketa, 1987 eta 1988



AURKIBIDEA

HITZAURREA	2
Joan Antonio Aroma	

IPUINAK

GAUEZ LIBURUTEGI BATEAN	4
Amaia Korres Aranoa	
LORATEGI MAGIKO BAT AGERTU ZITZ AidAN	7
Enertitz Gorrotxategi Caballero	
EULI ZORAGARRIA	11
Joseba Andoni Zamalloa Bereziartua	
KOBA	14
Aitzol Mendiola Agirre	

HITZAURREA

Soldaduzkatik etorri barria nintzen Julene Azpeitia ezagutu nuenean. Bere azken liburua prestatzen ari zen, —1974. urtean argitaratu zen ZUENTZAT— eta bere ipuin eskueskribatuak makinaz idatzita eramanez nahi zituen argitaletxera, bere eskueskribuak ez zituen etxetik atera gura, noizbait horrelakoetan galduak bait zituen batzuk eta horrelaxe ezagutu nituen ZUENTZAT liburuan argitaratu zituen ipuin eta istorio guztiak.

Umeontzat bereziki, ZUENTZAT idatzi zuen bere azken liburua, ipuin sorta eder eta gozoz ornituta.

Idazkera argia zuen eta horrek asko errazten zuen lana, egun haietan askotan bildu ginan bere Juan de Itziarko etxean nire makinatze lanak irakurten eta zuzentzen. Bere idaz tankera errespetatzea eskatu zuen euskara batuaren burruka pil-pilean bizi genuen une hartan.

Lana ordaindu egin nahi zidan eta horrela egin ere, horrelako lanak ordaindu egin behar zirela esaten baitzuen.

Horrelaxe ba Udaletxeko Kultur Batzordean umeentzat ipuin sariketa bat antolatzea pentsatu genuenean, —1983. urtean txarto ez banago— Julene Azpeitia izena proposatu nuen eta ontzat hartu danok, zeren uste dut izen hobeagorik ezin geniola jarri, kontutan harturik Durangon bizi izan zela eta umeak izan zirela Julene Azpeitiaren euskalduntze helburua eta etorkizunerako esperantza, eta ni ere hortan nago.

Hor doazkizue beraz azken bi urteotako lehiaketan saritutako ipuinak. Ziur naiz atsegin handiz irakurriko dituzuela eta ziurrago oraindik egileek hartuko duten poztasunaz heuren ipuinak liburuxka honetan argitaratuak ikusteaz. Azaleko leihoa zabalik duzue, sar zaitezte barrura!

JOAN ANTONIO AROMA

Amaia Korres Aranoa

5. Maila

Kurutziaga Ikastola

GAUEZ LIBURUTEGI BATETAN

Bazen behin Edinburgo izeneko eskoziar herri bat. Bertan, aztikeria gehiegi gertatzen zirela esaten zuten. Bertako jendea guztiz beldurturik zegoen eta ez ziren ausartzen zortzirak geroztik kalean ibiltzen.

Lau zenbakidun kaleko ertz batetan liburutegi bat zegoen. Herriko jende guztia hara joaten zen liburuak irakurtzera. Denetariko liburuak zeuden. Zazpi t'erdietan ixten zuten liburutegia.

Behin, ustekabean, Jon liburutegiaren ertz batetan Ketxusen Zooa irakurtzen ari zenean liburutegia itxi egin zuten. Jon hain pozik zegoen ez zela konturatu ere egin.

Ohartu zenean, izaturik, oihuka hasi zen, baina alferrik. Bapatean abots bat entzun zuen.

- Nor zara? -galdegin zuen Jonek.

- Ez nauzu ezagutzen?, Ni, Edurne Zurinen zazpi ipotxetariko bat naiz.

- Eta nola zaude hemen? -galdetu zion harriturik Jonek.

- Guk, liburutegia ixtean bizia hartzen dugu, eta irten egi

ten gara liburuetatik. Gaur jaia ospatzen dugu eta zu gure gonbidatu nagusia izango zara.

Jonek ipotx hura adarra jotzen ari zela pentsatu zuen. Baina laster konturatu zen ipotx hark egia zioela. Izan ere, han agertu ziren Txano Gorritxu, Ketxus, Edurne Zuri, zazpi txerritxoak, otsoa, Zipi eta Zape eta beste hainbat.

- Nor da hau? -hotsegin zuten denek batera.

- Jon naiz.

- O!, Jon da! -esan zuten.

- Bai, eta gure jai honetako gonbidatu nagusia izango da -luzatu zuen ipotxak.

Oso alaiak ziren guztiak. Dena zen musika eta dantza. Batzuk erdiko mahaian ari ziren jaten, beste batzuk ordea pailazoarena egiten ziharduten. Gau osoa pasa zuten barre eta algaraka. Jonek oso lagun onak egin zituen.

Bapatean, liburutegiko erlojuak zortzirak jo zituen. Hala ere, jende bitxi hura ez zen harritu.

Halako batean pertsonai guztiak desagertzen hasi ziren, bakoitza bere liburura sartuz.

Jonek atzera begiratu eta liburutegiko nagusia ikusi zuen. Beragana zetorren garrasika eta jotzeko asmoz. Eskua altxa eta indar handienaz kolpea ematen zihoanean...

- Jon, esna zaitez, zortzirak dira eta ikastolara joan behar duzu.

Amaren ahots goxoa zen.

Eneriz Gorrotxategi Caballero

6. Maila

Kurutziaga Ikastola

LORATEGI MAGIKO BAT AGERTU ZITZ AidAN

Egun batetan, solfeotik irten eta Ezkurdirantz joan nintzenean, Ezkurdi ez zegoen han. Ni, izaturik, kemena galtzean etsitzeko beharrean aurkitu nintzen, baina oldarrez beteta nengoenez, ez nuen etsi.

Nire pausuak oso poliki zihoazen, nerbioz beterik nindoan, misterio hura argitzeko prest. Bapatean, erabat lasaiturik gelditu nintzen, zeren han, nire begien aurrean neukan lore lila hura hartu nuenean ... Zast!. Har lila-urdinska bat atera zen loreak utzitako zuloatik. Begi haundi xamarrek zituen. Buruan, ilearen ordeaz, lumak zituen, luma oso finak. Oso abots kaskarina zeukan eta haserre zegoela zirudien bere abots tankeragatik. Oso haserre zegoen. Bapatean, hauxe galdetu zidan:

- Aizu!, Erraldoi haundi hori!, zergatik kendu duzu nire etxeko teilatua? Nork eman dizu eskubide hori? Ezin al gara behintzat bake pixka batekin bizi zizaretxook hemen?

Eta nik, harriduraz gainezka, hauxe galdetu nion:

- Zer egin dizut nik?, ez dut gogoratzen nik zuri zerbait egin dizudanik edo, behintzat, nik ez dut gogoratzen ikusi garenik.

- Noski ezetz! Hori ez zitzaidan ezer gustatuko.

Beno, trankildu zaitetz, neska hori ez dago burutik sano eta. Hobe da lasaitzen bazara. Hitzegin iezaiozu, ganorarekin eta jenio txarrik gabe.

Zizaretxo hura jenio txarrik gabe hasi zitzaidan hitzegiten eta, honela, lagun handiak egin ginen. Baina bere bizitza luzea kontatzen zegoen bitartean, nik beste leku batetan nituen begiak. Aipatu ez dudan gauza bakarra hau da: zizaretxoaren izena.

Txitxi zuen izena zizare honek eta abizenak, Geniolandia - Umorean, horregatik haserretzen zen hain errez eta segituan umore onez jarri. Baina lehen aipatu dudan bezala Txitxi bere bizitza luzea kontatzen ari zen bitartean ni beste gauza batetan nenbilen, Txitxiri jaramonik egin gabe.

Insektu txiki batzuk ere ikusi nituen, ondo jantzita eta ondo aipanduak zihoazen. Gauza bakarra aurkitu nien barregarri neska itxura zutenei: Beren aurpegia. Pailazo itxura zuten. Eta Txitxiri galdetu ondoren dena argi ikusten nuen. Ez ziren pailazoak ezta ere antzerakoak, txingurri andreak ziren ezpain margoa eman ondoren. Txitxik esan zidanez, "Bat, bi, hiru" programan Tina Turner-en ezpain margoa hain handia zela ikustean, abeslari hau imitatzea erabaki zutela txingurri andreak. Nik hori aditu nuenean,

noski, barreari ekin nion. Txitxik ere esan zidan bera oraindik ez zela ohitu. Horretaz hitzegiten genbilela, Grosi izeneko herensuge bat ikusi genuen. Txitxik hauxe esan zidan:

- Gixajo bat da. Ba al dakizu jaio zenetik zorte txarra duela? Eta, ba al dakizu horregatik barre algaraka gelditzen dela herri guztia aurretik pasatzean?.

- Ba ez nekien hori, Txitxi. Herensugea lagundu nahi nuke. Pena ematen dit, Txitxi!, lagun iezadazu berarengana. Galdetu egingo diogu zergatik duen zorte txarra.

Hurbilbu ginenean Txitxi eta ni lore batekin jolasean zebilen. Lasai zegoela zirudien. Txitxi eta ni, goxo-goxo, hurbildu egin gintzaizkion. Eta galdetu genionean, tristura aurpegia jarrita, hauxe erantzun zigun:

- Jaio nintzenean, Juri sorginak maldizio bat bota zuen nire gainean. Orduetik aurrera, horrelako zorte txarra dut. Besterik ez.

- Ba al dakizu zer egin behar dudan?, lagundu egin behar zaitut.

- Eskerrik asko!, ez dakit nola ordainduko zaitudan.

- Horrek ez du axola. Garrantzitsuena zu laguntzea da.

- Baina Arrate, sorgin hori maltzurra baino maltzurragoa da eta!

- Txitxi, ez dut nahi zurekin haserretzerik. Eta mesedez, hau egiten badut zerbaitegatik izango da.

Pena bat izan zen horrela hitzegitea Txitxiri, baina azkenean ulertu zuen zergatia.

Sorginaren etxera heldu nintzenean egin nuen lehenengoko gauza atea jotzea izan zen. Sorgina ezagutu nuenean beldur pixkatxo bat sartu zitzaidan, baina ez gehiegi. Sorginak hauxe esan zidan:

- Begira, gauza bat egingo dugu. Nik bost pastel jarriko dizkizut bihar, eta zuk egin beharko duzun gauza bakarra hauxe izango da: Bost pastel horietatik bat aukeratu. Denak izango dira onak bat izan ezik. Hau da, pastel txarra hartzen baduzu, Ezkurdira bueltatuko zara berriz ere, baina ona hartu ezkerok nik maldizio kenduko diot Grosiri. Konforme al zaude?

- Bai, konforme nago!

Eta heldu zen eguna. Sorgina lorategian zegoen itxaroten ea nik noiz hartuko pastel bat. Azkenean, hartu nuen, eta jan ondoren, momentu hartan, ez nuen ezer sentitzen, baina, gerora, inbisible bihurtu nintzen eta, orduan, zerutik Ezkurdira erori nintzen. Hori ikusi nuenean, negarrez, etxera joan nintzen korrika. Amak atea zabaldu zidanean hauxe esan zidan:

- Arrate, zergatik aurpegi hori?, izeba Luzia dago hemen eta ..., arin neska!, opari bat du eta.

Ni gogo txarrez joan nintzen izebarengana, beti bezala, hala ere, ez nuen plantauta utziko, ez da ala?

Beti bezala, opari bat zela esan zidan. Berak ez zuela erosi.

Ni hain triste nengoenez ez nion ezer aditu. Nire gelara joan nintzen, goibeldurik erabat. Bapatean, zarata arraro batzuk entzun nituen:

- Ai!, zabaldu kaxa hau!, ito beharrea gaude!

Hori entzun nuenean, poz-pozik, kaxa zabaldu eta hantxe ziren Txitxi eta Grosi. Besarkatu egin nituen, oso alai. Eta handik aurrera nire familiakoak bihurtu ziren.

Joseba Andoni Zamalloa Bereziartua

7. mailako irabazlea

M. Goretti Ikastetxea

EULI ZORAGARRIA

7 garren mailako Pakitori ez jakon eskolara joatea gustatzen eta nota txarrak ateratzen ebazan, baina berak asko ikasten eban. Irakasleak lan asko bialtzen eutsezan eta berak ezin ebazan guztiak egin, boligrafoa astiroegi ebalten eban eta distraita ere bazan. Egun baten eskolara joan zan. Lagun guztiak oso urduri egozan eta berak hauxe esan eutsen:

- Zer gertatzen jatzue?

Eta Jonek hauxe esan eutson:

- Azterketa dagoela, ez dakizu ala?

- Azterketa? -esan eban harriturik Pakitok-

Pakito oso urduri jarri zan. Liburua hartu eta arineketa baten ikasten hasi zan.

Baina irakaslea etorri eta hauxe esan eban:

- Benga, danok azterketa egitera!

Pakito oso urduri egoan, azteketa globala zan eta.

Azterketa egiten egozala Pakitori euli bat hurbildu jakon.

Pakito oso artega egoan. Eulia buruan bueltaka hasten jako. Antza danez, euliak zeozer arraroa eukan eta Pakitoren eskuan gelditu zan. Zeozer esaten egoala ikusi eban baina ez eban entzuten eta belarria hurbildu eutson, eta orduan, belarri zuloatik barrura sartu eta burumuinera joan jakon, eta euliak dana esaten eutson. Pakitok oso larri ikusten ebazan beste guztiak baina bera oso pozik egoan orain. Azterketa amaitu ebanean jolastera joateko esan eutson irakasleak. Beste lagunak azterketa eginda gero ere oso urduri egozan eta bera han ebilen, jolastu eta jolastu.

- Nik azterketa hau suspenditu egingo dot. -esaten eben beste lagunak.

Pakito jolasten ere txarra zan, baina eulia sartu jakonetik oso ona bihurtu zan. Euliak baloia saskira zelan bota, zelan jo behar eutson eta abar esaten eutsozan.

Bere lagunak oso harriturik geratu ziran Pakitoren jokaldiekin. Saski baloian danak saskiratzen ebazan, futbolean klasetik gol gehien eta geldiketa gehien egiten ebana zan. Neskatila guztiak hurbiltzen jakozan eta danak beragaz joatea gura eben.

Lehen esan dodan azterketan hamar bat atara eban. Bere lagunak oraindik gehiago harritu ziran eta behin hauxe esan eutsen.

Zu benetako Pakito zara?

Bai, zer ba? -erantzun eban berak.

Irakasleak ere oso harriturik geratu ziran baina horrela ibiltzea ez da txarra eta itxi egin eutsen.

Baina egun baten, lo egoala, eulia joan egin zan eta hurrengo goizean berak bardin jarraitzen eban. Euli eta euli gabe ere oso ona zan eta nota oso onak ateratzen ebazan. Euliak esaten eutsozala pentsatzen eban baina bere burumuinak esaten eutsozan danak.

Aitzol Mendiola Agirre

8. Mailako irabazlea

Kurutziaga Ikastola

KOBA

- Etor zaitezte hona, umetxuok! Aittittek gazte denboratako istorio bat kontatu behar dizue eta!

Balzola dimatar auzoko Abarrati baserrian zeuden, 1.987.eko negu gogorrean. Bertan zeuden Abarrati, Azkarreta eta Intxalde baserrietako lehengusuak. Beheko suaren epeletan, aitona, hogeitaz inguraturik, kontatzen hasi zen:

- Ni gaztea nintzenean, Dimatik gora beraien tramankulu eta guzti espeologo batzu etorri ziren hona. Bilbotarrak ziren. Baserriko arkupera etorri, Balzolako kobara zein bide zegoen galdetu ziguten. Guk, bidea erakutsi genien. Egun lorrina zen, eta behelainoa zegoenez, nire anaia zen Joxe Martinek lagundu zien jentil zubiraino. Hurrengo goizean, lurra laiatzen genbiltzala, hara non ikusten dugun bezperan igotako bat arrapaladan datorrela maldan behera.

- Desagertu egin dira besteak! Desagertu egin dira!

Hurrengo egunetan, Balzolan sekula izan den baino jende gehiago zegoen. Hura zen iskanbila! Kotxeak, motorrak, bizikletak, irriskatekoak, kuriosoak, ..., baina galdutakoak ez ziren agertzen, eta ez dira sekula santan agertu. Beno, eta orain nor bere kabira, loalditxo bat egiteko ordua da eta!

Baina Abarratiko Peruk, Azkarrenetako Olhabik eta Intxaldeko Maialenek ezin zuten lorik hartu. Hiru lehengusuen buruak koba barruan zeuden. Goizean, komentatzen ibili ziren aitonaen bart gaueko istorioa, eta ezkutuan kobara joatea pentsatu zuten. Larunbat goizean joango ziren, gurasoak plazan zeuden bitartean, errezago egingo bait zitzairen kobara joatea.

Laupabost egun itxaroten egon ondoren, heldu zen larunbata. Linterna, motxilak, erropa, botak eta beste hartu ondoren kobarantz abiatu ziren. Kobara sartzeak beldur pixka bat ematen zien, baina, ze Kristo! haraino joan ziren eta jarraitu egin behar zuten.

Erreskadan sartu ziren kobara. Metro batzu eginda zeuzkatenean tranpa bat topatu zuten. Zeinu arraro bat zeukan gainean. Tanpa zabaldu zutenean, atzean zegoenak laban egin eta denak jausi ziren zulora. Buelta asko eman ondoren topatu zuten azkenean irteera bat. Baina egin zutena zera izan zen, Eskubaratz zeharkatu, hori zen behintzat beraiek uste zutena.

- Baina hau ez da guk ezagutzen dugun Durangaldea! Begira Urkuleta, nolako Baserriak! Durangon ez dago fabrikarik; Mañarin ez dago harrobirik. Hau ez da posible! - zihoen Olhadubik.

Baina bapatean, fago artetik zaldun bat irten zen, Erdi Arokoek lez jantzirik. Honek, Balzolatik zetoze jakin ondoren, berarekin Durangora joatea proposatu zien, bertan, konteak emango zizkiela zehaztasun guztiak.

Kontea Antso Eztegiz zen, Nafarroako erregek Durangoko konte egin zuena. Honek, zera esan zien:

- Gaztela, Nafarroako erresumari Bizkaia kendu ondoren, Durangoko konterria eskuratzen saiatu zen. Hilabete batzu Gaztelaren esku, beste zenbait Nafarroaren esku. Azkenik, Gaztelak guda irabazia zuela ikusi genuenean Eguebasoko aztiari galdetu genion ia liburu zaharretan arazoaren irtenbideren bat topatu ahal zuen. Liburuak ikusi eta berrikusi ondoren, izkribu zahar bat topatu zuen, Mari jainkosak konterriari emana. Bertan zera ageri zen: Gaurko honetan, eta Mari jainkosa txit agurgarriari esker, zera adierazten dizuegu gerokoei: Balzolako koban hamar pauso ezkerretara, hiru aurrera, laupabost eskuinetara eta estalagmiten artean ongi inguraturik, eta Ekhi amandrearen zeinua gainean duela, tranpa bat dago. Tranpa hau zabalduz, lurraren barrukaldera heltzen da. Barrukalde honek azaleraren ezaugarri berdinak ditu, bakarrik dena basoz eta piztiz beterik dagoela. Otsoak eta artzak hilez lur hau zuena izango da. Behar beharrezkoa denean bakarrik erabili, bestela Mari jainkosaren haserrea jasan beharko duzue eta. Bertatik ezingo da inoiz irten, baina bertan bizi dena ez da hilgo, piztiren batek edo beste norbaitek hiltzen ez badu.

- Baina Konte jauna -zioen Maialenek-, guk etxera joan nahi dugu, gurasoak biziki arduratuko dira eta.

- Sentitzen dut -zioen Konteak- baina hemendik ezingo zarete irten, guk ez bait dugu irtenbiderik ezagutzen. Bestalde, gure bizitzeko era, IX. mendekoa, ezagutzeko aukera izango duzue. Eta gainera, zuek irten ezker, mundu guztiak izango luke sekretuaren berri, eta jende pila bat jeitsiko litzateke hona.

Hurrengo egunetan Konteak inguruak erakutsi zizkien, baina gazteak ez zeuden pozik.

Hilabete batzuen ondoren, lehengusuek etxera bueltatzea pentsatu zuten. Mugarrako haitzuloetatik Balzolako kobara joatea pentsatu zuten. Inoiz elkar loturik zeudela entzun zuten eta.

Gau batetan, denak lotan zeudenean, Santa Luziarantz jo zuten. Neberondo inguruan bilbotar espeleologoekin topatu ziren. Zaharkituak zeuden. Hauek kontatu zutenez Konteak gartzelaratu egin zituen, beronek eskatutako laguntzari uko egin ziotelako. Bilbotarrekin batera gartzelatik alde egiten lagundu zien gazte mardul bat zegoen. Bere izena Santxiko zen. Hauek ere Neberondoan zeuden, Mugarratik Balzolarra joateko asmotan. Haitzuloetara igoten zebiltzala zera galdetu zion Peruk agureetako bati:

- Zuek zergatik sartu zineten Balzolarra?

- Gu -zioen agure batek- Mugarra-Baltzola elkartzearen teoria baieztatzeko sartu ginen kobara, baina tranpa batetan jausterakoan ..., Agh! eta hilik erori zen. Kontearen guda-lostea zen iheslarien atzetik zebilena geziak jaurtitzen. Haitzulora sartu aurretik Olhadubi hil zuten. Baina durangarrek zera uste zuten: Haitzuloa sorgindurik zegoela, horregatik ez ziren ausartu iheslarien atzetik joaten. Haitzulo barruan zeudela, agureetako bat eta gazte bat asfixiaz hil ziren. Balzolako sarrerara heldu zirenean, zeukaten nekaldiarekin, seko lo geratu ziren. Hurrengo goizean mendizale talde batek aurkitu zituen. Aurkikuntzaren berria estatu osoan zabaldu zenean, bizirik geratzen zirenak ez zuten sekula aipatu barruan ikusi zutena.